



[www.begiko.com](http://www.begiko.com)

© 2000, Jordi Sierra i Fabra

© 2000, Ximena Maier

© Itzulpena: 2018, Idoia Aranberri

© Euskarazko argitalpena:

2018, Santillana Infantil y Juvenil eta Zubia Editoriala, S. L.

Legizamon poligonoa

Gipuzkoa kalea, 31, 1. esk.

48450 Etxebarri

Tel.: 94 426 90 72

ISBN: 978-84-16839-46-9

Lege-gordailua: M-4894-2018

Printed in Spain - Espainian inprimatua

Lehen argitalpena: 2018ko urtarrila

Sailaren zuzendaritza:

Joseba Santxo eta Maite Malagón

Edizioa:

Ainhoa Basterretxea eta Yolanda Caja

Errealizazioa:

Miren Pellejero

Zuzenketa:

Ane Barrenengoa

Arte-zuzendaritza:

José Crespo eta Rosa Marín

Proiektu grafikoa:

Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Julia Ortega eta Álvaro Recuenco

Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, zein eraldatzea, haren jabetza intelektuala dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.cedro.org](http://www.cedro.org)).

# **Seme maitea: greban gaude**

Jordi Sierra i Fabra

Irudiak: Ximena Maier

begiko



## Lehen eguna

Begiak ireki eta sabaiari begira gelditu zen 5  
Unai.

Hezetasun-orban bat zegoen han duela zenbait astetik hona. Azken solairuan bizitzearen kontuak. Hezetasun-orban bitxia zen hura, indiar baten itxura zuena, luma eta guzti. Luma mordo ederra eta guzti, egia esan. Aurpegiaren soslaia buruzagi handi batena zen, zalantzarik gabe. Sudur handi-handia, patata itxurakoa, ezpain itzelak eta begi zorrotzak. Arrano Beltz izena jarri zion Unaik. «Arrano» lumengatik eta «Beltz» orbana iluna zelako, are ilunagoa gelaren argitasun eskasagatik.

—Jao! —agurtu zuen.

Arrano Beltzek bere horretan jarraitu zuen.

Unai altxatu egin zen eta ordua begiratu zuen gau-mahaiko erloju digitalean.

Bederatziak eta berrogei.

Bederatziak eta berrogei?

Bederatziak eta berrogei!

Ezin zuen sinistu. Berandu-berandu zen.

- 6 Zergatik ez ote zuen amak lehenago esnatu? Eskolak duela hiru egun amaitu ziren, baina amak, gehienez ere, bederatzieta jaikiarazten zuen betiko erretolikarekin: izarak itsasten zitzaizkiola, lo egiten ohituz gero irailean kosta egingo zitzaiola eskolako martxa hartzea, hainbeste lo eginez gero ordu gehiegi alferrik galtzen zituela, batez ere goizeko orduak eta haiek zirela onenak, gizendu egingo zela, eta abar, eta abar...

Leihora hurbildu, pertsiana jaso eta kanporantz begiratu zuen.

Hura bai egun zoragarria!

Uda heltzeke zegoen oraindik. Bi aste falta ziren oporretan joateko, baina egun zoraga-

rri hark gauza mordoia egiteko aukera ematen zuen: kalera irten, lagunekin jolastu, partida bat jokatu... Bueno, hori amak uzten bazion, ze noten kontuaz geroztik...

Gutxiegi Matematikan.

Gutxiegi Euskaran.

Bietan batera, gainera.

Gurasoek berebiziko errieta egin zioten duela hiru egun. Egundokoa. Kalamatrika ederra berriro: ikasten ez bazuen astakirten hu-tsa izango zela, ez zuela bizitzan ezer onik lortuko, udan ikasi beharko zuela, hain mutil argia izanda ez zeukala zentzurik dena ez gainditzeak, alferrontzi hutsa zela, euliei begira egoten zela, ez zuela arretarik jartzen, eta abar, eta abar...

—Begira, Unai —esan zion aitak—, ikastea garrantzitsua da; baina irakurtzea are garrantzitsuagoa. Nik ez nuen zuk daukazun zortea izan, ezin izan nuen ikasi, baina harrapatzen nuen guztia irakurtzen nuen eta horri esker lortu dut naizena izatea eta nagoen tokian egotea.

—Begira, Unai —esan zion amak—. Jarre-  
ra aldatu eta espabilatzen ez bazara, egunen  
batean damutu egingo zaizu, kulturarik gabe-  
ko gizagaixo hutsa baino ez zara izango, eta ez  
dago ezer hori baino okerragorik.

8 Tira, hiru hilabete falta ziren iraileko azter-  
ketetarako. Ez zen ikasten eta irakurtzen ha-  
siko eskola amaitu eta berehala. Atsedena be-  
har zuen.

Deskonektatu.

Horixe behar zuen. Helduek sarritan egiten  
zuten hori, ezta? Bada, berak ere bai.

Agian amak horrexegatik ez zuen goizago  
iratzarri, «deskonektatzen» uzteko.

Dutxa hartu behar zuen, hortzak garbitu  
behar zituen eta jantzi. Gauza horiek guztiak  
egiteko orduan alferkeria sartzen zitzaion, are  
gehiago oporretan. Zer mania dutxarekin. Eta  
zer mania ditzosozko hortzekin. Nolanahi ere,  
hirurogeita hamar edo laurogei urterekin ero-  
ri egingo zitzaizkion, Balendin aitonari bezala.  
Gauetz garbitzen bazituen, zertarako goizez be-



rriro garbitu? Ez zituen erabili; beraz, garbi zeuden oraindik!

Logelatik irteten ari zela, bat-batean gogoratu zuen.

Anderrekin geldituta zegoen parkean futbolean ibiltzeko!

Hura bai plana! Itzela benetan.

Halatan, amaren bila joan zen. Amak itzultzaile gisa etxean lan egiten zuenez, ez zeukan ordutegi zorrotzik eta ez zuen egun osoa kanpoan ematen.

## Gimnasta

10 Ama galeriako terrazan zegoen, zera egiten...

—Ama, zertan ari zara?

—Bada, gimnasia egiten.

Unai harri eta zur gelditu zen. Gimnasia?

Amak berrogei urte zituen, altua zen, denek oso ederra zela zioten, begi handiak zituen, sudur perfektua, ile beltz luzea, itxura ona. Aita liluraturik zegoen amarekin. Batzuetan, begiratu eta semeari esaten zion:

—Munduko amarik politena daukazu.

Maitemindurik zeuden, noski.

Orain, ama gimnasia egiten ari zen.

Han, terrazaren erdian, top estua eta praka laburrak jantzita, auzoko guztiek ikusteko moduan, inguruan beraiena baino etxe garaia-

goak zeuden-eta. Besoak hemendik luzatu, zangoak handik luzatu, flexioak egin, arnasa hartu, airea bota, eta behin eta berriz ekin.

Lan lehergarria.

Eta guztiz alferrikakoa.

Unaik gauza bera egiten zuen, baina futboleko jokatzeko, eta gainera, ongi pasatzen zuen.

11

—Hor geldituko al zara niri begira, tentel baten moduan? —bota zion tupustean.

Unai adi jarri zen.

Batzuetan bere gauzetan pentsatzen hasita, arretoa galtzeko joera izaten zuen.

—Zergatik ari zara gimnasia egiten? —galdetu zuen Unaik.

—Sasoian egoteko, deskuidatuz gero, horrela gertatzen dira-eta gauzak...

—Zer gertatzen da, bada?

—Bada, gutxien pentsatzen duzunean, dena zintzilik daukazula.

—Eta noizdanik hasi zara horrekin kezkatzen?

—Bart gauetik. Zera esan nion neure buruari: «Sonia, aldatzen hasteko unea da». Eta hara! Hementxe nago.

Gelditu gabe zebilen.

12 Hizketan eta mugitzen ari zen aldi berean. Zangoak luzatzen zituen, gorputza tolesten zuen eta lurra ukitzen zuen esku-ahurrekin, belaunikaldiak egiten zituen, gerria biratzen zuen.

Amari zerbait gertatzen zitzaion, zalantzarik gabe.

Berrogei urte. Nagusia zen jadanik. Gaixoa.

—Eta horrek guzti horrek ba al du zerikusirik monopausiarekin?

—Meno, ez mono —zuzendu zuen amak—. Menopausia.

Gero zeharka begiratu zion, bekozko iluna jarri zuen eta hauxe galdetu zuen:

—Non entzun duzu zuk hitz hori? Irakurri ez duzu egin, hori seguru!

—Eskolan entzun dut —erantzun zuen Unaik, amaren zirikadari jaramonik egin gabe—. Batek esan zuen andereño Florak sus-



penditu egiten gintuela *monopausia* zeukalako... zera, menopausia.

—Hori tontakeria galanta! —haserretu zen ama—. Nolako errespetu falta! Lerdoak zarete eta, gainera, besteei botatzen diozue errua! —are gehiago haserretu zen eta erantsi—: Eta nik ez daukat menopausia! Emakume nagusiei gertatzen zaie hori, hilekorik gabe geratzen direnean. Umorea pixka bat aldatzen zaie, besterik ez. Ez da ezer gertatzen. Bizitzaren gorabeherak dira.

Haserrea puntu gorenera heldu zen eta garrasika hasi zen ama:

—Ez esan ulertzen ez duzun hitzik! Iraingarria da!

—Orduan, ongi zaude?

—Jakina! Kantsagarri hutsa zara! Utzi banean, zure erruz kontzentrazioa galtzen ari naiz-eta!

—Ondo.

Baina Unai ez zen zegoen tokitik mugitu.

Amak amorru aurpegia jarri zuen.

—Gosaldu duzu?

—Ez.

—Bada, hor konpon!

Bai gauza arraroa. Ez zion errietan egin hain berandu jaikitzeagatik eta ez dutxatzeagatik. Areago: ez zion gosaria prestatu.

Arraro-arraroa.

Dударик gabe, nagusiak burutik zeuden. Ez zegoen haiek ulertzerik. Egun batean sakratua zena hurrengoan ez zen sakratua. Nork igarri zer nahi ote zuten?

15

Gosaria berak prestatu beharko zuen.

Halakorik!

Sukaldera joan zen, katilu bat hartu zuen eta zerealez bete zuen; gero hozkailua ireki eta esnea hartu zuen. Larregi bota eta mahai gainera isuri zuen ia-ia. Ezin zuen burutik kendu amaren irudia gimnasia egiten.

Gosaria hartu eta, esnea berriz hozkailuan sartu gabe, harraskan utzi zuen katilua. Txorrota irekitzea bururatu ere zitzaion egin, busti eta zereal hondakinak katiluan gogortuta gera ez zitezen.

Galerian begiratu zuen.

Amak berdin-berdin jarraitzen zuen.

Arraroa benetan kontrolatzera ez etortzea.

Tira, hobe.

Unai logelara joan zen janzteko, dutxatik pasatu gabe eta hortzak garbitu gabe. Ama lanpetuta zegoenez, konturatu ere ez zen egingo. Kirol-prakak jantzi zituen eta bere elastiko gogokoenaren bila hasi zen, bere taldearena, futbolearen aritzeko.

Baina elastikoa ez zen inon agertu.